

Goiibek

kale

Elgetako aldizkaria apirila 56zk.

Akordioa Forjas Garaziagan



FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

FORJAS GARAZIAGA SIDEN
GREBAN LAN HITZARNAREN ALDI
ELA LAB

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Batasuna helburu

Maiatzaren erdialdera ibilbide berri bat hasiko du ezker abertzaleak urte askotako borrokek emandako eskarmentua oinarritzat hartuta mende berriko erronkei erantzungo dion giza elkarte bat egituratzeko.

Orain arte ezker abertzaleak jarraitu duen bidea estuegia geratu da etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeko. Horrela, ezinbestekoa da bide zabalago bat hartzea jende gehiagok tokia izateko, eta denon bultzadarekin etorkizun berria lortzeko.

Ezker Nazional berria sortu nahi dugula esaten dugunean, bide zabal horri izen abizenak jarriko dizkiogu.

Nazionala Ipar eta Hego Euskal Herriko erakunde bakar bat sortu nahi dugulako, euskara hizkuntza nazionala izango duena. Euskal Herri bakarra dagoelako lurralde ezberdinez osatuta, eta bere etorkizuna herri aske bezala eraiki nahi duelako.

Ezkertiarra, beti behartsuenen alde egingo duen taldea izango delako, gizarte berdintsuago baten alde borrokatuz lana eta aberatasuna banatzea helburu izango duena.

Makro-ekonomia eta mundu globalaren aurrean gure lurra lehen mailako balore bezala hartuko duena.

Idea nagusi hauek zehazteko eta talde berriak zer nolako egitura izango duen erabakitzeke hasten da martxan batasun prozesua, eta bide zabal hori erakitzeke urte beteko epea izango dugu.

Hasi baino lehen ez dago ezer zehaztuta, ez eztabaidako txostenik, ez jarraitu beharreko metodologiarik, ez zer nolako egitura izango duen talde berriak. Hori guztia herrietan egingo diren batzarretan erabakiko da.

Idea nagusi horiei bultzada bat emateko gertu dagoen edonork zabalik izango du bide zabal honetara sartzeko erromara.

Eman dezagun denok apur bat batzuk dena eman ez dezaten.

S. Arantzabal



ESTAMPACIONES
INTXCORTA S.A.



AENOR


ER

Empresa Registrada

PR-07142/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi z.k.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxa.: 94 6231928



Euskaldunak eta vascoak

Badira pare bat aste, euskaldunok hamar urte barru gutxiago izango garela entzun nuela. Nik hori sinisten dut, baina ez

da izango jaiotze gabeziaren kontuagatik soilik. Arrazoi larriagorik ere bada.

Euskalduna, hitzak dioen bezala, euskara duena da. Alderdi horri jaramon eginez soilik espektatibak onak dira: azken urteetan jende dexente joaten da euskaltegiak; Nafarroan ere gero eta euskara dakien jende gehiago dago, nahiz eta batzuk oztopatzen saiatu.

Niretzat, ordea, euskalduna ez da bakarrik euskaraz dakiena. Hor dago euskaldun eta vascoen arteko bereizketa. Euskaldun izan egiten da. Euskalduna, kultura batekin, ohitura batzuekin eta azken batean herriarekin, Euskal Herriarekin, identifikatua sentitzen dena da. Vascoa bestalde, euskaraz jakin edo ez, Euskal Herrian bizi eta bere burua, euskaldun izatearen gainera, espainiarizat edo frantseztzat duena da. Hauen interesak euskaldunen gainera defendatzen dituenak. Beti ere nire ikuspuntuaren arabera.

Hizkuntza pisu handiko elementua den arren, posible da euskara jakin gabe euskalduna izatea eta baita alderantziz ere. Zoriturrez, bigarren kasua sarriagotan ematen denaren beldur naiz. Azken hauteskundearen emaitzei begirada bat botatzea nahikoa da honetaz konturatzeko.

Horregatik, eta haserara bueltatuz, nork jakin urte batzuek barru zenbat euskaldun izango garen. Beharbada vascoek irentsi egingo gaituzte. Ohartzen bazarete, gero eta inguratuago gaude eta euskaldunon babeslekua gero eta mugatuagoa da.

Herria gaixo jarri zaigu eta pronostikoa larria da.

Euskalduna naiz eta harro nago. Hauxe da herri honetan zabaldu beharreko sentimendua. Aspirina bat edo jarabea hartzea bezain erraza ez den arren ez etsi, esperantza baita azkenengo galdu behar duguna.



Zergatik? Zergatik?

Behin, ume txikia nintzela, lagunarteko berbaldi baten ostean edo izango zen, aitari galdetu nion: - Aita, zuk non egin zenuen soldaduska?

Seko erantzun zidan:

- Hiru urte egin nittuzen nik Francoren kanpo-konzentrazinutan. Soldauskia egin esaten dozu?!

Esateko era eta doinuagatik konturatu nintzen gauza serioa ukitu nuela, baina, erraz konformatu nintzen. Serioa izanagatik, harro sentitzeko besteko erantzuna iruditu zitzaidan.

Aita, ama, aitita, osaba edo izeko kartzelan duten haurrei eskaini nahi diet tartetxo hau. Zer oroitza-pen izango dute haurtzaroz ume horiek, gizon-emakume heldu egindakoan?

Txiki-txikitatik ohituta daude ume asko senideren bat bisitatzen kartzelaz kartzela. Segur aski ez dira ausartzen kontatzen laguntxoei nolako bidaia aspergarri luzea egiten duten asteburutan aita ikustera joateko, eta joaten ez badira, ama joaten dela eta amamarekin edo geratu behar izaten dutela. Eta amak gogor egin behar duela lan astean zehar, ez bakarrik familia aurrera ateratzeko; gainera asteburuero ehunka kilometroko bidaietan diru asko gastatzen du, eta senarrak kartzelan urrea ordaindu behar du fruta pixka batengatik edo xaboi pusketa batengatik.

Umea hazten joango da, batzuetan sekulako bidaia egin ondoren, ez diote sartzen utziko, eta amak eta biak autobusetik jaitsi eta gero jantzi dituzten soineko apainak, berriro erantzi eta aita ikusi gabe bueltatu beharko dira...

Hala, handien konbertsazioak ulertzen hasiko da haurra, eta jakingo du, aitak aspaldi behar zuela kanpoan, baina kartzelako gizon haiei ez diela gogorik ematen aitari etxera etortzen uzteko. Zergatik? —galdetuko du, agian.

Noizbait aitaren lagunaren bat gaixo dagoela entzungo du, eta hark ere etxean behar zuela aspaldi, baina ez diela gogorik ematen kartzelakoei... Zergatik? Zergatik? -galdetzen dute etengabe.

Haur horiek ez dute kanpo-kontzentrazioa zer den galdetu beharrik.

Beatriz Zabalondo



kutxa

gizarte-ekintza
obra social



Eusko Jaurilaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honen
argitaratzailea



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

GOJBKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta.

Erredaktoreak: Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).

Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Alizia Stürtze: "Bizi kalitatea gauzak erostea ez dela ikusi behar dugu"

Maiatzak 19an, barikua, gaueko 21etan Maya ingurugiro taldeak Alizia Stürtze historialariaren berbaldia antolatu du liburutegian. Berbaldiko gaia "Kultura eta ingurugiroa" izango da. Hitzaldian, dauzkagun gizarte eredia eta kultura, emakumearen garrantzia, pertsona bakoitzak edo eta herriek gizarte eredia aldatzeko egin ditzaketenak aztertuko dira. Berbaldian aztertuko dituen gaiak zeintzuk izango diren ezagutzeko, Alizia Stürtzerekin egon gara.

- "Kultura eta ingurugiroa" du gaitzat hitzaldiak, zer aztertuko duzu? Hitzaldian kultura eta ingurugiroaren artean dagoen lotura aztertuko dut. Kapitalismoak, kultura, hau da, zibilizazioa naturaren aurka jari du. Beste hitz batzuetan esatearren, zibilizazioak naturaren aurkako borroka planteaiatu du. Natura, ingurugiroa eta zibilizazio arteko harremana lortu behar dugu. Guztien arteko harremana emateko.

- Zer nolako kultura dauka gaur eguneko gizarteak? Greizar zibilizaziotik etorri harren, kapitalismo eta neoliberalismoarekin erroto da naturaren aurkako jokaera. Horren menpe gaudela eta ez dagoela konponbiderik pentsatuta, guztia onartzen dugu. Progresoak naturaren aurkako erasoak onartzea ekarri du. Gauza batzutan esaten dugu ekologistak garena baina beste askotan progresoak dakartzen ekintzeekin ados gaude. Kotxearekin ibiltzen gara aurrera eta

atzera edo superfzie handietan egiten ditugu gure erosketak gure burua ekologizatzen hartu arren.

- Jendeak hausnartzen al du gizarteak hartutako bidearen inguruan? Gauzak ez dira txuriak eta beltzak. Komunikabideek eskeintzen digutena ona ala txarra den bost axola zaigu, badirudi telebistan diren bezalakoak nahi dugula izatea. Badakigu daramagun bidetik arriskua dagoela Gai hau nahiko utopikoa dela pentsatzen dugu, ezin dugula ezer egin aldatzeko. Gazte eta ez hain gazte batzuk kontsumismoa, etxebitza eta lanaren arazo...konpontzeko batzen ari dira, auzo edo herrietan. Globalizazioak daukan sarea bezala, gune desberdinetatik funtzionatu behar dugu, bakoitzak bere gunean sare hori hausteko ahal duena eginez.

- Ba al dago gizarte hau aldatzeko modurik? Bai. Batez ere gazte jendeak, lan, etxebitza, ingurugiro, teknologia berrien... arazoak ditu. Ikusten da kapitalismoak badituela ahuleziak, jendeak ilusioarekin gizarte aldatzearen alde borrokatu behar

du. Desobedientziaren bidetik, loteria ez erosiz, azindari ez ordainduz, ez gauza ilegalak egiez baizik, gauza alegalak eginez borrokatu behar dugu. Beste aldetik, bizi kalitatea gauzak erostea ez dela ikusi behar dugu, gizarte kapitalistan jaio garenok konturatzen ari da erosten dituen gauza asko ez dituela beharrezkoak.

- Koka-kola, Mc Donals, zentro komertzial izugarriak... zer nolako eragina daukate gizartearen? Eragin haundia daukate, EEUU hau oso garbi daukatelako. Dirua egiteneta ideologia bakarra zabalitzen ari dira mundura. Ez dute produktua bakarrik saltzen, bizitzeko modua saltzen dute. Bizi eredu, kompetitibitatea, EEUUetako bizi ereduarekin lotzen dute, beraien kultura salduz. Gainera badakite nundik sartu, heldu, gazte eta haurren munduan. Guk eredu hori kritikoki ikusi behar dugu, nahi duguna hartuz eta ez duguna nahi baztertuz. Gauzak kritikoki ikusi behar ditugu, ez haurrean jartzen diguten lehenengo gauza besterik gabe onartuz.



Alizia Stürtze apirilean topagunean emandako berbaldian

GRUPO
PFA
 Produkturik onenak,
 prezio onenean
ALDI
 Tel: 76 80 98.

Bandoni Bolinaga
 METALAK
 FS7 18
 Tel - Fax 76 80 64
 ELGETA



Bi asteko greba eta gero akordioa Forjas Garaziagan

Forjas Garaziagako langileak greba mugagabea hasi zuten apirilak 15ean, 2.000 urterako enpresa pak-tuan, ez zirelako nagusiekin akordio batera iritsi.

Aurtengo enpresa paktoa egiteko orduan langile eta ForjasGaraziagako nagusien artean arazoak izan dituzte. Enpresa paktoa egiteko orduanlangileak ez zeuden ados enpresak eskaintako soldata igoera eta zapatutan lan egiteagatik kobratuko zutenarekin.

Enpresak ez zituenez langileek eskatutako igoerak onartu, apirilak 15ean LAB eta ELA sindikatuek deitutako greba mugagabea hasi zuten langileek.

Greban zehar ez dira falta izan istiluak langileen artean. Haue-tako bat lanera joaten zen, lanera joan zen egunetan lantegira sar-tzeko

Ertzaintzak babestu behar izan du. Lankideen "eskirol" diarren artean sartu izan da pare bat egunetan.

Bi astetan greban egon ondoren apiri-lak 25ean akordio batetara iristeko bilera egin zuten enpresako nagusi eta langileek. Bilera horretan ez ziren akordio batetara iritsi eta apirilak 28 arte ez dute arazoa konpondu.

Enpresako nagusi eta langileen ordezkariak apirilak 28an eguerdian akordio batetara iristeko bideak zeudela esan ziguten egun honen bespe-ran. Hla ere goizean Eibarren eginda-ko bileran ez ziren akordio batetara iritsi. Azkenean arratsaldean akor-dioa lortu zuten, enpresak 4,3 puntu-tako igoera eta zapatutako soldata 7.500pta. izatea lortu dute. Akordio honetara iritsi ondoren langileek gre-ba utzi dute eta aurreko zapatuan lanari ekin zioten.

Asentzio eguna ekainak 4an, 3an Joxe Ripiau.
Ekainaren 4an ospatuko den Asentzio eguneko egi-taraua zehazteko bilera egingo da liburutegian maiatzak 4an iluntzeko 19:00etan. Dagoeneko dan-tza ikastaroa martxan dago, zapaturo 12:00etan batzen dira gimnasioan. Asentzio Egun bezperan Joxe Ripiau taldea izango da Gaztetxean.

Atzegiren kanpaina zuzena

Aurtengo kanpainak, Adimen urritasuna duten per-sonenganako jarrera ezta-baidatzen du. Pertsona hauei gizartean partehar-tzea posiblea egiten duten elementu dinamikoak iza-tera gonbidatzen gaitu, zailtasunak dituztenean laguntza eskeiniz, beraien desorientazioan informa-tuz bizitzan moldatu daite-zen, beraien defentsa eska-sen aurrean laguntza eskei-niz eta beraien gaitasunak eta baloreak bultzatuz.

Trikitixa eta perkusio saioa

Maiatzak 21ean, domeka, eguerdiko 13:00etarako ekitaldi berezia antolatu dute kultura batzordetik. Donato Goienetxe perku-siolari eta Edurne Iturbe trikitilariak Trikitixak bon-go, danbor afrikar, xiloma-rinba, kriskitin, kutxa fla-menkoa... joko ditu, fan-dango, arin-arin eta euskal folkloreko abestiez osatu-tako emanaldian.

INAKI JATETXEA
Leku paregabea,
eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

OSTATU JATETXEA
Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Bertsolariak Elgetan

Azken bost urteetan ez da herrian bertso saiorik egin

Udaletxeko Kultura eta Euskera batzordeak maiatzaren 5erako bertso saioa antolatu du. Bertso saioa polikiroldegian izango da gaueko 22:30etan. Azken bost urteetan ez da Elgetan horrelako bertso saiorik egin, bertso saiora gonbidatuta dauden bertsolariak Oihane Enbeita, Jesus Mari Irazu, Maialen Lujanbio, Jokin Solozabal eta Ainhoa Agirrezaldegi dira.



Ainhoa Agirrezaldegiz gain beste lau bertsolari ikusteko aukera izango dugu aspaldiko partez.

Bertsolariei gaiak aurkeztuko dizkienak Etor Sarasua eta Leire Basauri izango dira. Arratsaldeko 8:30etan afaria egongo da Ostatu jate-txean eta txartelak salgai daude Ostatu jatetxean bertan, 2.600 ptatan. Txartelak hartzeko azken eguna maiatzaren 3ko eguerdiko 12:00ak izango

140 pertsona tanborradarako

Maiatzak 6an tanborradako bilera gimnasioan. Egon prest tanborra joteko.

Dagoeneko bi hilabete daramatzate Jai Batzordekoek, ekainaren 29an hasiko diren jaiak antolatzeko lanetan. Jai Batzordean herriko talde desberdinek hartzen dute parte, adin guztietako jendearentzako tanborrada, jokuak, kontzertuak, emanaldiak eta beste zenbait ekintza interesgarri antolatzeko lanetan.

Urtero bezala Azoka Nagusiko jaiak uztaileko lehenengo igandearen aurreko egunetan izango dira. Ekin-tza garrantzitsuenak aipatzearen, ekainak 29an eguena, arratsaldean haurrentzat jokuak eta parkea izango dira. Gauean afari herrikoia izango da plazan, ondoren kaskajoen etorrera, Play Back lehiaketa eta Lis-ker taldearen erromeria izango dira.

Ekainak 30ean barikua,

ekintza berrien artean aipagarriena jubilatuek egingo duten dantza saioa izango da. Jaietan zenenak ez dira faltako bariku eta zapatu iluntzean izango dira. Egun honetarako dago iragarrita 4 eta erdiko txapelketako finala eta Luhartz taldearen erromeria.

**Afari herrikoia,
erraldoiak, tanborrada,
kontzertuak, Soneros
del Changüí, dantzak,
Tirri-Tarra, espektakulu
piroteknikoa...
Giro ona egongo den
seilale da egitaraua.**

Uztailak 1ean, Arrasateko dultzainero, erraldoi eta buru handiek emango diote hasiera egunari. Gaueko 22:30etan tanborrada izango da, aurtengo egitarauko ekintza aipagarriena, bertan herriko 140 pertsona inguruk hartuko dutelarik. Tanborrada aurrera eramateko entsaiuak maiatzak 6an hasiko dira eta gero zapaturu entsaiatzeko asmoa dago. Tanborrada eta gero Soneros del Changüí talde kubatarren emanaldia izango da plazan.

Uztailak 2an, ganadu, lore, labore tresna eta barazkien azoka izango dugu. Arratsalean herriko eta Eibarko hurrek hemengo eta Galiziako dantzen erakustaldia egingo dute. Jaietara emateko iluntzean Tirri-Tarra-koen ikuskizuna eta gauean Ibiltariak kale arteko espektakulu piroteknikoa.

Jarri zure iragarkia

Tel:78.90.85

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

Goimendiko San Migel Jaiak maiatzaren 6 eta 7an

Aurten eliza berritua inauguratuko da

Hilabetetako lana eta gero maiatzaren 7an inauguratuko da San Migel Monte ermita berritua. Teilatu berria, kanpaitokia gogortuta, hormak errebo-kauta, lurra baldosa eta harlosa berrietuekin, habeak indartuta eta bistarátuta, San Migelen irudia be apainduta eta kanpoan be euriaren kalteak gutxitzeko lan sakonak eginda.

Ikusten ez ziran gaixotasunak zituen: bata inguruko pagoen zuztar eta orriek sortutakoa, susterrak aldareraino zegozelarik eta orriek teilatua zikinduz. Bigarrena umedadeak sortutakoa, teilatuko urak zuzenean ermita bueltan jausten ziran eta. Eta Hirugarrena aldareko habe nagusia zehenak janda agertu dana.

Guztia konpontzeko ia lau milioiko aurrekontua egon da eta auzotarren laguntza hainbat lanetan. Aurrekontuko milioi bat Bergarako Udalak emongo dau eta bestea bertako eliztarren kontu izango da.

Bi mendeko historia gerren menpe.

Aurrez Kanpazar inguruan, Dantzalekua deitzen dan lekuan behar bada, zegoen San Migelen ermita eta XVIII. mende bukaerako Frantsesen kontrako gerra zala eta zeharo txikituta gelditu zan, leku estrategikoa ei zan eta Kanpazar gain hori Bizkaiaren defentsan. Kanpaia gelditu ei zan bakarrik pago batetik txintxilik.

Emita barik egon ziren urteetan harrixa eta txingorra besterik ez ei eban egin urtero, soloetako lanak hondatuz.

Eskaera onartu eta Juan Angel Otxoa de Angiozar "Técnico Agrimensor"ari agindu jakon leku egokia aurkitu eta planoak egiteko. 1819ko San Joan egunerako aurkeztu eban proposamena eta Jose Joakin Elkorro, elgetarrrak, hartu eban jasotzeko kargua.

Elizpea eta kanpaitokia 1863an egin ziran, erromeria egunetarako.

Harrezkero, 1937an, Espainako Gerran, bertan egon zan "frentea" zala eta, ametrailadora postua egokitu eben eta, aldare aldean, zuloak egin ebezen nazionalen trintxeretara tiratzeko. Orduan erre eben soldaduek San Migelen irudi barrokoa, "su ederra" egin ebala esanez.

Aurtengo egitaraua

Maiatzaren 6an, hasiko dira jaiak Kanpazarren egingo dan afariarekin. Gabeko 9etan izango da afaria eta bertsolariak (Mañukorta eta Zeberio) eta Nikolas "Eguzki"ren soinua girotzeko.

Domekan, hilaren 7an, 13:00etan izango da meza San Migelen. Auzoko neskek aureskua egingo dabe dantzan eta meza ostean Jarduneko soinu-joleek girotuko dabe inguratutako danei eskeiniko jakuen gonbite goxoa.

Angiozarko bira

Ohiturari jarraituz maiatzaren batean korrituko da "Angiozarko zikloturista bira". Goizeko zortzietan emongo jako urteeria plaza-tik eta aurtengo ibilbidea ondoko hau izango da: Angiozar-Oñati-Udana-Azatarria-Zerain-Segura-Olaberria-Ormaiztegi-Gorostia-ga (Legazpi)-Deskarga-Angiozar.

Ormaiztegiñ egingo da abituailamentua eta ibilbideko punturik gogorrena Gorostia-gako gaina izango da bere 900 metro pasauekin.

14,30ak aldera Ortzin bilduko dira parte-hartzaileak elkarrekin bazkaltzeko.

Pagomendi Elkarteko anaiarte eguna

Maiatzaren batean, Langileen Jaiarekin batera, ospatuko dabe Pagomendi Elkarte-koek bere anaiarte eguna. Pagomendi Elkarteak 44 urte beteko ditu aurten eta ez da faltako sortzaileen umore ona eta harrezkeroko bazkideen kantuak, soinu-jole eta tenore eta guzti.

Erritualak agintzen daben moduan pago adarrez apainduko dira ate eta leihoak eta egun horretako meza hildako bazkideen alde izango da.

Euskal Herriko Goiti Beheren 6. Txapelketa hasi da

Pasa dan astelehenean, hilaren 24an, Pazkua astelehenez, emon jako hasieria Lapurdiko Hazparnen Euskal Herriko Goiti Beheren 6. Txapelketari. Jende ugari bildu zan txapelketako lehen ekitaldia ikustera.

Partaideak 17 izan ziren eta irabazleak, osteria, Galdakako Billota eta Lagunizan ziren. 2.350ko bidea egiteko 3 minutu eskaz behar izan zituzten.

47,263ko abiada izan zuten bataz beste.

Gogoratu behar dogu aurtengo Txapelketak hiru ekitaldi edukiko dituela: Hazparneko hau, Urnietan maiatzaren 27an eta azkena Angiozarren irailaren 16an, danak atsaldeko lauretan hasiko direlarik.

Kirol hau gogoko dozuenok badakizue, hurrengo zita Urnietan izango dala.



Goibelkalkale 56.zk

Zer iritzi dakazu Elgetako etxiek daken preziuan gaiñian?



Balkame Avenaza
(32 urte) Bikargiña

Argi dago leku danetan igo dala, baiña Elgeta dan moduko herrixa izanda hemen izugarri igo dira. Esaterako, etxe askon baloria be urte gutxian pillo bat igo da. Neretako eskari asko zeuanez, pertsona asko horrena aprobetxau dira.

Nik uste dot Elgetarako etxe asko egin dittuela eta oso karuak dira. Neretako daren etxe zaharrak aprobetxau biharko litzakez, gaiñera, merkiauak izango dirala uste dot. Eta gaztiendako oso zaila da horrek preziuok pagatzia.

Laura Martin
(20 urte) Jkaskia



Jhisaso Parejo
(39 urte) Etxelkandhia

Neretako Elgetako etxiak oso karuak dare bai gaztiendako bai guretako. Gaiñera, holako herri baterako oso karuak dare. Holako pisu bat ezin dau pagau gazte batek ez badau asko irabazten behintzat. Uste dot bi jornal bihar dirala horretarako.



Angel Egizabal
(56 urte) Jubilaua

Nik uste dot herri txixketan eta haundixetan dagon diferentzia izugarrixa dala eta han eta hemen esku lana eta materixalan preziuak berdiñak izanda ezingo zan holako diferentziaik egon.

Egixa esanda Elgetako etxien preziuak oso karuak dira, bizi maila igotzen doia eta hori be igo egin bihar da, baiña bihargin batentzako gehixegikua da. Gaiñera lana be ez dago hain seguru eta holan askoz zailagua da.

Santiago Arantzabal
(53 urte) Bikargiña



Nik Elgetako berri asko ez dakit, baiña Gasteizen asko igo dabe, adibidez nik lehengo urtian erosi neban eta oiñ 12 milloi gehixau emoten doste etxe berdiñagaittik. Baiña dakittenez Elgetan be asko igo dabe etxian preziuak.

Joxean Urizar
(65 urte) Jubilaua



Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Paxi Taberna

Aintzane denda

zugandik gertu behar duzun beste

Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

ARIES: hire alergiak ez jakak/jakan akaberaik. Medikuanera fan biharko haiz itto baiño lehen.

TAURUS: Ezik pentsau ideia bardin askok arrazoia egitten debenik. Bestiei be entzutiak ez dua/dona kalteik egingo.

GEMINI: Gabez galduta ibiltzen haiz, edozeinen laguntzian bila habil han ta hemen. Inork ez hau ulertzen, horrelakuak dittuk/dittun jenoak.

CANCER: Gu gaittuk/gaittun mobiltzen gazenak eta ez izarrak. Horregaittik, arazoa be hor jaok/jaon eta hi mobidu bihar haiz.

LEO: Astian zihar dakazaken/dakazanan buruaustiak alde batera laga, danak edo ixa danak urtenbidia jakak/jakan.

VIRGO: Galdutako ardixa bilau leike, baiña aldixak berriz ez. Badakik/badakin erretzen daben suak berotu be egitten jok/jon.

LIBRA: Bikotiak ez dua/dona jamonik be egitten, baiña lasai, hori astorata egotearren dok/don.

ESCORPIUS: Ezik dana aurrez preparau. Izan hadi espontaneuaua, askoz emozionantiaua dok/don eta batez be hiretako.

SAGITARIUS: Hori lotsioi galdu biharrak dakak/dakan eta gorputza askatu. Orduan libriau sentiduko haiz eta gauzei alde positibua ikusiko.

CAPRICORNIUS: Zoratzen hasi hai zela esaten juek/jone, baiña hi lasai, diferentia izatiak bestiengan inbidixia sortzen jok/jon.

AQUARIUS: Ez galdetu iñoi gauza illun danen erantzunik. Pazientzia eta denboriak berez-berez emongo due/done.

PISCIS: Udabarrixa heldu eta euzkixa etorriko zalakuan hor hago demaseko depresiñuakin. Etorriko dok/don euzkixa eta hartuko dok/don nahi beste.

Imanol Juaristi (36 urte) Bihargiña

Zer egitten dozue zuen taillarrian? Generalian forjaua.

Gustoko kolore bat? Berdia. **Ze kolorekin identifikatzen zara?** Gorrixakin.

Zer botatzen dozu zure bizitzan faltan? Dirua.

Lanetik kanpora zagozenian lanekin pentsatzen dozu? Ez, bapez.

ziñuke? Txakur zaintzaillia. **Zeñi joko zontzake "harrixakin buruan"?** Elgetako alkatiai. **Bateronbatekin egoteko argittasunian ala illunpian?** Argittasunian. **Egunian zenbat ordu sartzen dozuz lanian?** Zortzi.

Irakurri dozun azkenengo liburua? Ez naiz gogoratzen, oiñ dala 20 bat urte izango zan irakurri nebala.

Zeñi ipiniko zontzakez pilak? Udaletxiai.

Zure jefia zelan portatzen da zurekin? Ondo, ondo.

Aste akaberetan zer egitten dozu? Txakurrak atera eta basuan ibilli.

Definidu zure burua bi hitzetan. Oso konplikaua.

Zeñi egingo zontzake holako 15 galdera?

Pedro Estebezi.

Ze eskatzen dotzazu zure bizitziai? Osasuna.

Zenbat denbora pasatzen dozu preparamen?

Oso gutxi.

Gustoko musika talde bat?


Nere semiai ez jakona gustatzen, "bakalaua".

Etxian kable bat botatzen dozu? Bai, bai.

Goibekokaleko parteik interesgarriena? Azkenengo orriko argazki zaharra.

Huelgak egittia biharrezkua ikusten dozu? Gaur egunian bai.

Kazarixak ekologistak izan leikez? Bai.



Beste lanen bat aukeratzekotan, zer aukeratu?

Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatua
Etxaurreak

Sukaldeak
Komunak

Otzango Behetxea Baserria. Tel: 860156

Idatzi bai baina zer?

Gai hau aukera-tzeko denbora luzez pentsatzen egon ondoren, idazten ausartu naiz. Ez dut hiztegiari hiltzik topatu behar, beraz, burura etortzen zaidan bezela idatziko dut.

Oso zaila da bat batean idazlan bat egitea edo edozein artikulu idaztea. Gainera presiopean baldin bazaude are gutxiago. Hau da, aste beteko epea ematen badidate artikulu bat idazteko, lau egun egoten naiz zeri buruz idatzi behar dudan pentsatzen eta azkenerako edozer gauza idatzi beharrean sentitzen naiz.

Aspaldian ez dizkiot nire pentsamen-

duak inori azaldu eta badago buruko min apur bat sor-tzen didan kontutxo bat. Azkenaldian oso gaizki ibili gara aldizkarirako gaiak aukeratzeko orduan eta aurrekoan eskolan ikasitakoa idatzi behar izan nuen, pare bat laguntzailerekin. Ez da erraza gai zehatz bati buruz idaztea. Orain arte goibekokalen ikastola atalean idazten dugunok urtean zehar idatzi behar ditugun gaiak aukeratu izan ditugu.

Arazoa, lantzeko zailak diren gaiak aukeratzeko ditugunean hasten da. Behin gaia aukeratutakoan ordenagailu aurrean eserita eta bi lerro idatzi ondoren, nola jarraitu? Jarraitzeko eskolako

liburuetan eta entziklopedietan informazioa jaso beharrean behin baino gehiagotan sentitu gara. Niri ez zait ondo iruditzen liburuetan dagoena kopiatzea, batez ere atal hau gure iritzia eta pentsakerak idazteko delako.

Arazoaren beste alde bat, data jakin baterako idatzi behar izaten dugula da, eta ikasle gehienek bezala azken egunerako uzten dugu eta gero oso larri ibiltzen gara.

Baina artikulu

honekin, ez diot inori errurik bota nahí, are gu-txiago tokatzen zaigun bakoitzero atzetik ibiltzen zaizkigun pertsoneri, beraiei esker idazten dugulako. Ez baligute abixatzen ez ginen inoiz idazten ipini eta ausartuko.

Agurtu egin beharko naiz, bestela idazteari gustua hartuko diot-eta. Espero dut artikulu hau idaztera eramán nauenak ulertzea.

Nagore Oianguren

Jarri zure iragarkia

Tel:78.90.85

Debagoieneko komunikazio enpresa batek ZUZENDARI KOMERTZIALA behar du

Enpresaren diru sarreren ardura osoa izango du, produktuen sorrera beretik fakturazioraino, horretarako eratuko den lantaldea zuzenduz, eta beste arduradunekin elkarlanean.

Eskatzen da:

- Sormena eta antolaketa gaitasuna.
- Antzeko lanetan esperientzia.
- Gidatzeko baimena eta autoa.
- Office-ko programen ezagutza.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua, mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Soldata negoziagarria.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, maiatzaren 27a baino lehen, ondoko helbidera:

95 Posta Kubxatila • 20500 ARRASATE

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAK ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

IBAIBA- RRIAGA GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E HARATEGIA A S T

San Roke 6
Tel: 768168.

...eta kitto!, Drogeteniturri,
Goibekokale eta Pil-Pilean aldizkarien
AUTOEN GEHIGARRIA



Honakoa da Eibar, Elgeta, Ermua eta Soraluzeko aldizka-
riok hilabete honetan argitaratu dugun bigarren eskuko
AUTOEN GEHIGARRIA.

11.100 ale kaleratuko dira, 35.000 irakurle ingururendako.

3. zenbakia. 2000ko apirila

Publizista: *Mertxe Agirre*. Diseinua eta maketazioa: *Koldo Mitxelena Zumaran*.

Tirada: 11.100 ale. Tel. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 67 76

SEAT EIBAR MOTOR.


Otaola 17

EIBAR

Tel. 943 20 30 93 / 943 12 18 00

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
CITROEN AX	M-IK	1988		400.000
FIAT TIPO Diesel	BI-AY	1989	J/E; I/Z; L/D	500.000
FORD SIERRA	BI-AX	1989		300.000
OPEL ASTRA GLS 1.6	SS-AV	1995	J/E; I/Z; LD	1.050.000
OPEL VECTRA 2.0	BI-BC	1991	J/E; I/Z; L/D	600.000
OPEL KADETT 1.8	SS-AL	1991		600.000
PEUGEOT 405 GL	BI-BH	1991		400.000
RENAULT 21 GTS	SS-AM	1992	J/E; I/Z; L/D; Klimatizadorea	450.000
SEAT CORDOBA DREAM 1.9D	SS-BD	1999	J/E; I/Z; L/D	1.780.000
VW. GOLF III GTI 3p	VI-O	1993	J/E; I/Z; L/D	1.200.000
VW. GOLF II GTI 3p	M-MS	1990	J/E; I/Z; L/D	600.000
VW. PASSAT GT 16V	SS-AK	1992	J/E; I/Z; L/D	500.000
VW. GOLF III GL 1.9 TDI 3 p	NA-AN	1995	J/E; I/Z; L/D	1.550.000

A/E: Aire Egokitua J/E: Jasogailu elektrikoak L/D: Lagundutako direkzioa AB: Airbag I/Z: Itxidura zentralizatua

OPEL  **Analsa**

ELGOIBAR	Olaso, 25	943 74 40 12
EIBAR	Otaola Etorb., 27	943 70 08 41
MENDARO	Plaza Auzoa, z/g	943 75 50 72

HYUNDAI



Mendaro Autoak

DONOSTIA	Zumalakarregi Etorb., 1	943 31 22 00
ELGOIBAR	Olaso kalea, 27	943 74 32 00
EIBAR	Otaola Etorb., 27	943 20 60 00
IRUN	Pinar, 21	943 61 02 00
MENDARO	Plaza Auzoa, z/g	943 75 50 72


MENDARO AUTOAK.

MENDARO

Plaza auzoa z/g

Tel. 943 75 50 72 / 608 77 33 98

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
OPEL OMEGA TD		1993		975.000 pta.
HYUNDAI LANTRA 2.0 Familiarra		1997		1.750.000 pta.
HYUNDAI ACCENT 1.3		1998	5 ate	1.000.000 pta.
PEUGEOT 205 Diesela		1994		700.000 pta.
OPEL CORSA 1.4 i		1993		600.000 pta.
HYUNDAI COUPE		1993		800.000 pta.



*Garabi zerbitzu
iraunkorra
Tfnoa. 608-17 78 89*

ERMUA KARROZERIAK, S.L.

Zeharkale, 26 300 Postakutxatila
Tfnoa. 943 17 62 66 ERMUA

ROVER GROUP



RALLYE SPORT

Anton Beroiz Celaya

Bigarren eskuko kotxeak baita ere!

Barrena 32 - 20600 EIBAR - Tel: 943 12 03 09 - Faxa: 943 12 03 09



**AUTOENDAKO ERREMINTAK, ALDAGAIK
ETA OSAGAIK**

**Etorri eta
ikusi zure
autorako
irratia**

➤ **KENWOOD**
➤ **PIONNER**
➤ **ALPINE**
➤ **JBL**

Otaola 7

EIBAR

Tel. 943 70 21 31



KIA GorAuto

* SEPHIA
* SHUMA
* CLARUS
* SPORTAGE
* JOYCE
* CARNIVAL

AUKERAKO AUTOAK

✓ 206 XR 75 3p
✓ CLIO 1.4 5p
✓ IBIZA TDI 3p
✓ 406 BREAK STDT
✓ EXPERT TD

gehiago ere baditugu

*ERAMAN KIA BERRI BAT:
1.700.000 baino
merkeago!*

GorAuto
Karmen 15 EIBAR
☎ 943 12 12 74

Gidatzeko Karnet Guztiak

SOLOZABAL

autoeskola

TORIBIO ETXEBARRIA 5 - 1.

Tel. 943 70 23 84

- Klase teoriko eta praktikoak norberak nahi dituenan.
- Klase teorikoak ikusentzunezkoen abantailak erabilia.
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko nazioarteko agentzia ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.

**HOGEL, S.A. (Fiat/Alfa Romeo banatzailea) B. Sarasketa 7
EIBAR**

Tel. 943 12 10 19 / 943 12 10 00

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
FIAT PUNTO 55 3p. S		1999		
FIAT PUNTO 60 SX 3p		1999	Ekipamendu osoa	
ULYSSE TD			7 lagunendakoa, ekipamendu osoa.	6.690 Km.
FIAT PUNTO TD 5p.		1999		
FIAT PUNTO 55 5p. S		1999	6.250 kilometro.	
BMW 520i				
BMW 3. seriea			Merkea.	
FORD COURIER 1.8 Diesela				
FORD MONDEO 1.8				
NISSAN PRAIRIE SLX			Monobolumena.	
FIAT TEMPRA STADIO			Kilometro gutxi.	
W. PASSAT 2.0 GL.			Automatikoa, egoera ezinhobean.	
LANCIA DEDRA 1.6			Ekipamendu osoa, prezio ona.	

AUTOMOBILAK

LAIGOR



I. Ojanguren 2. Tel: 943 20 64 74
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

T. Anitua 3. Tel: 943 20 18 99
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

**garajes
garcía**



Ricardo García

Bidebarrieta, 39
Tel. 943 20 22 14
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Fernando García

Barrena, 11. Ayra Durex erai.
Tel. 943 12 72 71
Faxa. 943 20 43 04
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



Tailer profesionalak

**TAILER MEKANIKOAK
VALDI**

Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak...



Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Citroën berria

Xsara

Zure azkenengo ametsa




Zaer Motor

Tel. 943 70 70 33
Faxa. 943 12 73 42

EIBAR





**...eta kitto!, Drogeteniturri,
Goibekokale eta Pil-Pilean aldizkarien
AUTOEN GEHIGARRIA**

**FORD KONDIA
EIBAR**

**Otaola hiribidea 22
Tel. 943 20 76 50**

MODELOA	MATRIKULA	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
FORD ESCORT 16V	SS-BB	1998	ABS, J/E; I/Z; L/D	
FORD KA 1.3i	A-DW	1999	J/E; I/Z; L/D	
FORD ESCORT 1.8 TD	SS-BB	1998	J/E; I/Z; L/D	
FIAT BRAVA 1.4	SS-AW	1996	Kilometro gutxi	
FORD ESCORT NOMADE TD	BI-CH	1998	J/E; I/Z; L/D	
CITROEN ZX 1.6i	SS-AW	1996	Ekipamendu osoa	
FORD FIESTA 1.8 D	BI-CH	1998	J/E; I/Z; L/D; llantak	
OPEL CORSA 1.2	SS-AJ	1990	Sabai elektrikoa	
FORD FIESTA 1.1	SS-AN	1992		
TOYOTA COROLLA 16V	BI-CK	1998	Ekipamendu osoa	
FORD ESCORT 1.8	SS-AL	1991		
FORD COURIER 1.8 D	SS-AV	1995		
FORD ESCORT XRI 16V	SS-BB	1998	J/E; I/Z; L/D; llantak; aleroia	

A/E: Aire Egokitua J/E: Jasogailu elektrikoak L/D: Lagundutako direkzioa AB: Airbag I/Z: Itxidura zentralizatu



GARAJEA Legarre

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Legarre, 2
Telefono eta Faxe: 943 20 63 71

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

MUÑO A
AUTOMOBILANDAKO PIEZAK

Bidebarrieta, 14, 16 Tfnoa: 943 20 13 17 - 943 20 62 28



Ego Gain, 4 - behea
(San Andres pasealekutik)

EIBAR
Tel. 943 20 34 45

**ZEZEN
BIDE
AUTO
ESKOLA**



Jon Andueza: "Literaturatik bizitzea gustatuko litzaidake"

Apirilak 12an bete da urtebete Jon Andueza Elgetara bizitzera etorri zela. Anai-Etxen bizi da, Marian neskalagunarekin eta Gari seme jaioberriarekin batera. Duela gutxi arte ETB1eko "Egin Kontu" programan ikusi ahal izan dugu. "Orain ikusten ari garenak errepikapenak dira. Ez dut beste semeirik izan, ez eta beste istripurik pairatu. Ez naiz horren desastrea", argitu nahi izan du Jonek. 34 urteko arrasatear honek bide luzea egin du Kazetaritzako ikasketak amaitu zituenetik. Arrasate Press, ATB, Berrigara, "Hor dago koska" programa famatua... "Egin Kontu"rarte. Zinemagintzan ere murgilduta dabil. *Laugarren Galeriatik* eta *Bernar* laburrak egin ostean, filme luze baterako gidoia idatzi du.

-Zer moduz Elgetan?

Ondo. Urte bete da etorri ginela. Leku trankila da bizitzeko. Gustura. Momentuz, ez gara damutu etortziaz.

-Zergaitik Elgeta eta ez beste edozein herri?

Etxebizitza baten bila genbiltzan. Neskalaguna eta biok Arrasatearrak gara, eta gure gogoak printzipioz, Arrasaten bizitzea zen. Garai batetik ona ordea, etxebizitza bat lortzea oso garestia bihurtu da. Edozer gauzagaitik, izugarritzako astakeriak eskatzen dira. Beraz,



Etxean, ordenagailuaren aurrean, lan egitea izango litzateke Jonen ideala.

leku batean eta bestean begira ibili ostean, Elgetan erostea erabaki genuen.

-Duela gutxi arte ETBko "Egin Kontu"-n aritu zara. Zer moduzko esperientzia izan da?

Telebistara heltzen zarenan ilusio handiarekin heltzen zara. Egin ez diren gauza denak egiteko prest. Behin bertan zaudela, konturatzen zara telebista guztiak, orokorrean, nahiko eskasak direla. Eskasia horren barruan, alde batera uzten dituzu hasierako planteamenduak. Deitzen

zaituzten lekuetara joan, ahalik eta txukunen lan egin eta ondo pasatzen saiatzen zara. "Egin Kontu"-n, oso gustura sentitu nintzen aurkitu nuen lan taldearekin. Badakit topiko bat dela, baina programa honetan jende gazte askok lan egin du, eta hori nabaritu egin da. Programaren kalitatearen inguruan... "en fin".

Azken bi hilabete hauetan, eskuan izandako arazo baten ondorioz, bajan nago. Dena den, orain telebistan ikusten ari garen programak errepikapenak dira. Beraz, argi utzi beharra dago,

batez ere Elgetako jendea-ri, ez dudala beste seme-rik izan, ez eta beste istripurik pairatu. Ez naiz horren desastrea.

-"Egin Kontu"-n agertu aurretik denbora dexente egon zara pantaila aurrean agertu barik...

Hau baino lehen egin nuen azken programa Kale Gorrian izan zen, 1996an. Programa hartan gainera ez neukan aparteko pisurik. Claudio Landa eta Iñaki Beraetxerekin batera aurkeztu nuen. Orduetik, dantza lehiaketa bat (hiru programa) besterik ez dut egin. Programa honek, berriro pantaila aurrean ipintzeko aukera eman dit. Hala ere, beti ibiltzen nahiz programak zuzentzen, gidoiak idazten etab.

"Bernar laburmetraiak, euskaraz egindakoa izan arren, Espainia mailan ere sari ugari bereganatu zituen"

-Zer nolako telebista egiten da gaur egun?

Oso txarra. Telebista programazioen maila, orokorrean, txarra da. Espainiako telebistaren bigarren katea ezik, guk ezagutzen ditugun beste kanalak oso "kutreak" dira. Dena den, denbora gutxiren buruan, gauzak aldatu egingo direla uste dut. Dagoeneko zenbait lekutan ikusi ditzazkegu ordaindu beharreko kanalak. Kanal tematiko asko ikusteko aukera ematen dute. Norberak nahi duena ikusteko aukera izango du, eta horrek, aldaketa handia ekarriko du. Kanale onak egongo dira. Momentuz, hori gertatu bitartean, ikustean ari kanaleen maila oso eskasa da.

-ETBk erantzuten al die

komunikabide baten exigentziei?

Ni ezezkoan nago. Ez ETBk ez beste inork. Gure erreferentzia diren kanalak estatukoak dira. Estatuan mota ezberdinetako kanaleak aurkitu ditzazkegu. Alde batetik, *Telecinco* eta *Antena 3* daude. Bi telebista hauek pribatuak dira, eta beraz, hauei ezin zaie ezer eskatu. Hauen helburu bakarra irabaziak lortzea da. Publikoen kasua ezberdina da. Kanal hauek denon artean ordaintzen ditugu, beraz, beste jarra bat eskatu behar diegu.

"ETB-k beste telebista mota bat egiten saiatu beharko luke, audientziei hainbeste begiratu gabe"

Publikoak diren kanalak ez dira audientzien gerra absurdoan sartu behar. Telebista eskasten duen arrazoi nagusia audientzien gerra dela uste dut. ETBk jasotzen duen dirulaguntzarekin, beste planteamendu bat egitea beharrezkoa litzateke. Beste telebista klase bat egiten saiatu, audientziei hainbeste begiratu gabe. Hori litzateke ideala, baina errealitatea oso ezberdina da. Ziur programazio arduradunak izugarrikoa komeriak izango dituela.

-Zein programa tipo aurkeztuko zenuke gustora?

Garai batean, galdera hau egiten zidatenean "El dia despues" bezalako programa bat aukeratuko nuela erantzuten nuen, Michael Robinsonekin batera. Denborarekin, ordea, gauzak nola diren konturatzen hasten zara. Eskaintzen dizuten programak kalitate gutxiagoak direla onartu beharrean aurkitzen zara. Programa horiek ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. Lan taldea dela edo beste edozer dela, programa zama bat bihurtzen ez den bitartean konforme.

-Goiena proiektua abian da. Zein iritzi duzu?

Proiektu interesgarria da. Ez dakit beharrezkoa den, baina gauza interesgarri asko ditu. Arrasate Presesekin, ATBkin eta Arrasate Irratiarekin gertatu zen bezala, kazetariak trebatzeko balio beharko luke, kalitatea alde batera utzi gabe, noski. Ikusi egin behar nola irtetzen den. Dena den, pentsatzekoa da, denborarekin hoberrantz egingo duela.

-Zinamegintzan ere murgildu zara. Oraingoz, bi labur egin dituzu (Laugarren Galeriatik eta Bernar). Arrakastatsuk biak...


Betidanik izan dut zinemagintzan murgiltzeko zirrara hori. 18 edo 19 urte nituela gidoi bat idatzi nuen. Azkenean, lagunak asko zirikatu ostean, labur bat egitea lortu genuen. Laugarren Galeria, ganorabako kuadrila batek egina izateko, oso ondo atera zen. Arrakasta eta sari asko jaso zituen. Arrakasta ikusita, arra sartu zitzaigun eta bigarren batekin animatu ginen. *Bernar*-ekin izandako arrakasta izugarria izan zen. Euskaraz egindakoa izan arren, Espainia mailan ere sari ugari bereganatu zituen. Oso harrera ona izan zuen.

-Filme luze baterako




Jon eta bere familia oso gustura aurkitzen dira Elgetan.

HAIZEA
TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

gidoia ere idatzi duzu. Kontaiguzu...

Historia Bernar egin ondoren sortu zen. Labur honetan, Down sindromea duen Gorka Zubiaurrek lan egiten du. Nire asmoa, luzemetraia bat egiteaz gain, nire lagun Gorka lanean ikustea zen, oso aktore ona baita. Gutxi gorabehera horrela hasi zen dena.

-Zein da pelikularen mamia?

Hirian bizi den pertsona bat da protagonista nagusia. Krisi pertsonal, sozial eta ekonomikoan aurkitzen den pertsona bat. Egun batez, telegrama bat jasotzen du, herri txiki batean bizi zen osaba hil egin dela esanez. Osabak, herentzian, baserri bikain bat terreno eta guzti utzi dizkio, baina herentzia hori bereganatzeko bertan bizi den mutil baten kargu egin beharrean dago. Mutil hau Gorka da, Down sindromea duen gazte bat. Horren inguruan sortzen den istorioa kontatzen du.

-Noiz ikusi ahal izango dugu filmea?

Ez dakit. Zinea egitea oso konplikatu da, batez ere, inor ez zarenean. Merkaturian bi labor egin dituen ez da inor. Lehenengo pelikula egitea zaila da oso. Nire kasuen ez da hau arazo bakarria. Bilboko produktora batek proiektuari baiezkoa eman zion, baina produk-



Programak aurkezteaz gain, gioiak zuzen-tzen, gidoiak idazten eta abar dihardu Jonek.

tora horrentzat ere lehen pelikula izango da. Produktora indartsu baten zako, pelikula bat egiteko behar diren 200 milioiak lortzea astebeteko lana da, baina hauek lanak izango dituzte. Gure asmoa 2001. urteko gabonetarako ateratzea zen, baina atzerapen handiz goaz. Egiten bada ondo. Kontraktorik ez bada egingo dela uste dut.

- Etorkizunean, zinemagintzan ikusten al duzu zure burua?

Momentu honetan, nahiko saltsa-maltsa daukat nere buruarekin. Lehen oso argi neukan, programak aurkezten nituenean, aurkezle moduan jarraituko nuela. Bizimodu oso ona zen, golperik jo gabe... idaztea ere oso gustuko dut, nahiz eta azken aldi zertxobait baztertuta daukadan. Azkenengoa, berriz, zine-

ma mundua izan da. Aukeratu beharra banu, idaztea gustatuko litzaidake. Zergaitik literatura? Telebistan eta zineman lan talde baten partaide zara. Nagusi asko eta "indixo" gutxi dauden lan taldea. Etxean, orde-nadore baten aurrean ipini eta norbera bere buruaren jefe eta "indixo" izateak erakartzen nau. Hori litzateke nire ideala, beste gauza bat lortzea izango litzateke.

- Nola ikusten duzu Euskal zinemagintza?

Euskarazko zinemagintza ez dut ikusten. Ez da existitzen eta ez da existiduko. Zinema egitea oso garestia da. Filme merkeenek ere 150 milioitiki gorako aurrekontua du. Diru hori arriskatzeko pertsonak, gutxienez, bueltan beste horrenbeste nahi du. Kontutan izanda, euskaldunak ez garela milioi batera helitzen, ezinezkoa da horrelako gastua egitea. Logikoena gaztelaniaz egitea da, merkatua askoz ere zabalagoa delako. Azken finean, negozio bat da eta ez artea. Duela urte batzuk, Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, egin ziren zenbait saiakera baina argi geratu zen martxa hori jarraitzea ezinezkoa zela. Irtenbide bakarra instituzioen bitarteko finantziaketa zatekeen, bestela sekula ez dugu euskaraz egindako zinemagintza ezagutuko.

"Zinea egitea oso konplikatu da, batez ere, inor ez zarenean"

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzak
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Jon Irazabal, elgetar gazteek kirola aukeratzerako orduan duten zalantzen adibide

Jon Irazabal 15 urte betetzeko dituen 3. D.B.H.ko ikaslea dugu. Elgetako laurdiko txapelketan kadete mailan parte hartuko duen pilotari bakarra da. Pilotan ezezik Bergarako kadetetako futbol taldeko kapitaina dugu. Gaur egun Elgetar gazteek kirola aukeratzekoan dituzten zalantzen adibide dugu, nahiz eta azkenean gehienek futbolera jo. Jonek bitartean bi kirolean dihardu al duen neurrian.

-Noiztik zabilta pilotan jokatzeko?

7 urte nituenetik gaur egun arte. Baina azken bi urte hauetan ez dut gehiegi pilotan jokatu fut-

bola dela eta. Futboleko Bergarako lehen urteko kadeteen taldean dihardut gainera kapitain bezala.

-Txapelik irabazi duzu pilotan?

Bakarra dut. Gazteizen irabazi nuen, Zaramagan, Txurruka soraluzetarrarekin.

-Zein duzu nahiago futbola edo pelota?

Ez dakit zer esan. Momentu honetan biak egiten ditut, biak ditut gustoko. Futboleko gehiago aritzen naiz pelotan baino. Entrenamendu gehiago egiten ditut futboleko. Pelotan asko jota astean behin entrenatzen dut. Pelotan jokatzeko ez

daukat herrian adineko jenderik eta sarri nagusiagoekin jokatu behar dut. Askotan nagusiagoen supleite izaten naiz.

-Zein kirol dituzu gustoko?

Kirola generalean. Pilota ikusteko asko gustatzen zait.

-Ze beste gauza egiten dituzu kirolaz gain?

Egia esan ez daukat denbora asko gauzak egiteko. Eskolak eta entrenamenduek denbora asko kentzen didate. Baina soinua joteko astia ateratzen dut.

- Pilotari gustokoena? Zer iruditzen zaizkizu beste pelotariak?

Herritik hasita Elkoro. Gero, Aimar Olaizola da gehien gustatzen zaidana Titinekin batera. Goñi zoro bat da.

-Kirolean urrutira iristeko asmorik bai? Ze ikasi gura duzu?

Hori oso zaila da. Ni ahalik eta urrutien iristen saiatuko naiz, beti ere ikasketak alde batera utzi



Jon ,laurdiko partidua jokatuta baino bi egun lehenago

barik. Ikasketei dagokien ez dakit oraindik zer ikasi nahi dudan. Ikusiko dut.

-Herri honek zure adineko jendearendako kirol eskaintza zabalik baduela uste al duzu?

Nere ustez herri honetan txikiendako eta haundiendako egiten dira kirol ekintzak. Guretzako ez dago ezer ez. Txikiendako ekintzetan ezin dugu parte hartu eta nagusiekin jokatzeko dugunean adibidez futbitoan, gu baino indartsuago agertzen dira.



Jon Irazabal eta Mikel Juaristik, talde berean dihardute.

IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel.768078

"ETB Kantxa" txapelketako partiduak erritmo onean doaz

Kadeteetan Irazabal kanporatua, eta nagusietan Arantzeta, Peñalver eta Uberall aurrera

Txapelketaren lehen hila-betea bete denean poliki-poliki kanporatuz doaz lauterdiko txapelketako lehendabiziko pilotariak. Aurtengoan ez ditugu izan aurreko urtetako pilota partidien pilatzeak. Pilotarien kanporaketa erritmo onean doa eta orain arte batazbeste astero 25-30 partidu jokatu izan badira, hemendik aurrera kopurua jeitsi egingo da. Datorren asteetan, astero 15-20ren bat jokatuko dira.



Oskarbik antolatuko duen txapelketa XXV izango da.

Elgetarren partiduak

Lehiaketako lau elgetarrek beren partidak aurreko bariku eta zapatuan jokatu zituzten. Barikukoan Irazabalek eta Peñalverrek jokatu zuten. Irazabali galtzea tokatu zitzaion, Peñalverrek, berriz, 9an laga zuten Aurkia tolosarra. Peñalverrek hasieratik aurrea hartu zuen bere sakeareki esker. Zapatuan Arantzeta

eta Ubera II.ak jokatu zuten. Ubera II erraz nagusitu zen Beristainen aurka 22-6. Arantzetak, berriz, arazo gehiago izan zituen Azpiazu kanporatzeko. Partidua erraz bideratua zeukan arren, bestea asko urbildu zitzaion eta gauzak zail ipini zitzaion. Azkenean 22-19 irabazi zuen. Hasierako partidatan urduri aritu dira elgetarrak.

Xabierrek hirugarren amaitu zuen Debako proban

Aurreko asteetako emaitza honekin jarraituz, hirugarren amaitzea lortu zuen Xabierrek. Lasterketa Deban izan zen, 85km. ibilbidearekin. Txirrindulariek Itziarko gaina bi aldiz eta Kalbariokoa behin igo behar izan zuten. Irabazlea, Debako kaleetan izan zen 14 txirrindularien arteko esprintean erabaki zen. Zarautzeko lasterketan, ostera, 20. amaitu zuen. Lasterketa honetako lehendabiziko 25ak, arratsaldetan erlojupean aritu ziren. Esan, Gipuzkoako ranking-ean Xabier momentu honetan 18. postuan dagoela.

Janire Lazkano Gipuzkoako txapelketarako sailkatua

Hiru faseak jokatu direnean, hirugarren amaitu du sailkapen orokorrean. Honek, Eibarren Maiatzaren 13an jokatuko den Gipuzkoako txapelketarako sailkatu du. Lehenengoa izan zen egin zuen faserik one-na, besteetan postu honetatik atzera ibili da.

Saskibaloikoentzat amaitu da denboraldia

Kopa txapelketa zen Elgetarrek eskuratu zezaketen denboraldiko azken garaikurra. Aldiz, gauzak ez zaizkie ongi joan. Bi partidatara jokatu beharreko lehen kanporake-

tan kaleratuak izan ziren. Lehenengo partiduan 40 puntugatik irabazi arren bigarrean galdu egin zuten gutxigatik. Jarraian jokatu zen luza-penean ere galdu egin zuten. Kopa-

ko txapelketako arauen nahasmenak eta joko eskasak ez zieten batere mesederik egin (elgetarrek puntu arteko diferentzia kontutan hartzen zela uste zuten).

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

IQBAL MASHIB

Apirilaren 16an Haurren Esklabutzaren aurkako egun mundiala ospatu denean, ziurrenez gehienok ez dugu ezer entzun honen ganean. Zoritxarrez, beste hainbat albiste eta zarraparrak leku garrantzitsuagoa hartzen dute gure hedabide gehienetan. Honela ba, ondorengo lerroetan munduan zehar pairatzen den miseria eta besteekiko gehiegikeriari leku bat emanez, jendeari duen garrantzia luzatu nahi diogu.

Iruditzen duzuen mutiko honek, 12 urte besterik ez ditu. Berau, Indarkeriazko Lanaren aurkako mugimenduko partaidea zen.

Kristau bezala bataiatu zuten, nahiz eta bera bizi zen auzunean gehienak fundamentalista islamikoak izan eta bere herriaren %97a musulmana. Bere gurasoak zituzten zorrak zirela medio, 4 urte zituela 2.000 pezetagatik saldu egin behar izan zuten.


Esklabu batek bezelaxe lan egiten zuen. Bere lantokian, Ehsan Ullah Khan -Lanaren Askatasunerako Fronteko presidentea- ezagutu zuen. Hemendik aurrera hasi zuen fronte honetan bere militantzia, erahil zuzenaren kristaua izateko bere modua izan zen. Bere bizitzan zehar, langileak haur esklabuak zituzten hainbat lantoki istea lortu zuen. Bere borroka honetara Pakistango lehen ministrari emakumea gehitu zitzaion. Heriotz meatxuak jaso zituen enpresariak zituzten mafien eskutik, eta beronek, aske eta zentzuz, bere burua entregatu zuen.

Bere lana eta esfortzua ezagutu nahian, sariak eman zizkieten Estokolmon eta Bostonen.

Emandako sariarekin ez zuen jantoki bat ireki, baizik eta ESKOLA. Lehen harria ezarri zuenean abokatu izateko nahia zabaldu zuen horrela, haurren esklabutzarekin amaitzeko.

1.995eko apirilaren 16an, mafiak erahil zuen.

**Militantea eta
martiria 12
urterekin**



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salvador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Jarri zure
iragarkia**
Tel:78.90.85

Ikusi dogu kantarixak ipintzen dittugun bakoi-
tzian jente gehixauk hartzen dabela parte lehiaketa-
tan. Orainguan hiruzpalau mezu e-posta bidez be
jaso dittugu eta gaiñera bestiekin batera zozketa-
tzerakuan heuretako bat urten da irabazle.
Gasteiz aldetik dator erantzun zuzena. Markel
Vigok Tapia eta Leturia zirala esan dosku eta
berarentzako izango dira kamisetok. Ez dot uste
Markelek Goibekokaleko urteurrenien trikitalari-
xok ikusteko aukeria euki zabenik, hala eta be,
erantzuna egokixa izan da eta berak nahi dabe-
nien pasau leike Goibekokaletik kamiseten billa.
Gaiñera elkartasun eguneko singela be emongo
dotsagu.

Hurrengo asmau biharrekua begibista-
kua da. Zailla dala? Erreza? Ikusiko dogu ia
hurrengo alian asmatzen dozuen. Zertan dihar-
due? **Kamisetez gaiñ beste singel bat** be badaka-
gu emoteko. Elkartasun egunerako Unai
Iturriagen hitzekin Mikel Urdangarinek egindako
kantua CD baten bihar badozu idatzi.

Erantzunak bialdu Goibekokalera,
Salbador 2xan gare, Kultura Etxian. E-posta era-
bili gura izan ezker: goibeko@topagunea.com.





Anai handixa

El Gran Hermano telebisi-
ñoko programa barrixak
zeresan haundixa emon
dau. Europako beste leku
batzutan be egindda, eta
oin guri tokatzen jaku
ikustia. Programiaren
gaiñeko iritzixak be
periodiku guztietan ager-
tu dira, normalian, kriti-
katzeko. Batek baino
gehixauk esango dau guri
zer inporta jakun bestiak
zer egitten daben, baina,
emoten dabenez, beste
batzuei inporta jakue guk
zer egitten dogun.

Oiñ arte kontrol
nagusixa Jaungoikuarena
zan, eta irudixa be horre-
lakoa da: triangulu baten
begi haundi bat. Dana
ikusi eta kontrolatzen
dau, eta dana dakixenez,
apartauko gaittu gero
batzuk ezkerrera eta bes-
tiok eskumara. Jaungoi-
kuaren errepresentantiak
be izan dabe kontrola
lurrian kontzesionarixue-
tan entzundakuakiñ.

Anai Haundixa
Orwellen liburu batetik
hartutako izena da. Hor
liburuan Anai Haundixak
dana kontrolatzen dau,

bai herritar bakoitzak zer
egitten daben, bai zer
pentsatzen daben (erreali-
tateak nobelia gaindittu-
ko ote dau?). Nobelan
Anai Haundixak agintzen
dau eta pentsamendu
bakarra dago, berak gura
dabena egin biharko da,
bestela kontuak. Hori
metaforioi erabiltzen dau
Orwellek esateko Esta-
tuak gero eta gehixau
kontrolauko gaittuala.
Liburuari 1984 izena jarri
zotzan, eta urtian ez
zeban asmatuko, baina
urte batzuk gorabehera
hortik bidetik doia asun-
tua.

Guk uste ez
arren, Anai Haundixak edo
anai haundixek gutaz
informaziño asko dake,
eta gero eta gehixau, eta
badakizue zer esaten dan:
informaziñua boteria
dala. Eta zertarako gura
daben guk zer egitten

dogun jakittia? Ba, batez
be, bi gauzatarako: alde
batetik gu kontrolatzeko,
eta bestetik, enpresen
kasuan, euren produk-
tuak guri saltzeko. Jakin
barik, edo ezin bestian,
datu pillo bat lagatzen
doguz hortik zihar, eta
gero horrek datuok batzia
besterik ez dago bakoit-
zaren berri jakiteko: gure
historial klinikuak hor
dagoz, deklaratzera
be (errenta) hor doiaz
beste datu batzuk, erosi-
ttakua pagatzeko txartela
erabiltzen dogunian be
hor joango da zenbat eta
zertan gastau dogun,
interneten be zer idazten
dozun eta zeñi edo nun-
dik nora ibiltzen zaren
kontrolatzeko modua be
badago. Orain, hor dabiz
genoma gora eta genoma
behera, eta Alemaniako
aseguru-etxe batzuk jakin
nahi dabe bakoitzaren

genomaren barri gero
seguruak egitterakuan
prima bat edo bestea jar-
tzeko. Telefonikak be
gure datuak erabilliko eta
salduko ei dittu idatziz
kontrakorik esaten ez
badotsagu behintzat...

Danok ei dauka-
gu alde illunen bat gure
bizitzan, baiña, hala eta
be, ez dot uste gure bizi-
tzak haiñ interesantiak
diranik. Batzuentzako
izango dira, askok denbo-
ria hortan emoten dabe-
eta: batak eta bestiak zer
egin daben eta zer ez
daben egin jakitzen.
Askotan norberak egitte-
ko kapazidaderik ez eta
inork egindakua kriti-
kau bihar.

Dana dala, den-
bora pasarako Gran Her-
mano ikustia baiño hoba
izango da anai txikixari
kasu egittia.

Enrike Gorrotxategi

**Guk uste ez arren, Anai
Haundixak edo anai haundixek
gutaz informaziño asko dake,
eta gero eta gehixau, eta
badakizue zer esaten dan:
informaziñua boteria dala**

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**




Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako
babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67



Erretratua: Mari Carmen Oianguren

San Fermiñetan giro onian

Eu erretratuau 1967xan etaratakua da. Zehatzauak be izan geinke, eta esan uztaillakua dala argazkixa. Uztaillian zein jai garrantzitsu egoten da Euskal Herrixan? Ba etara kontuak, hau uztaillan 9xan etarata dago.

Kriston juergagirua zeken honek neska-mutilok. autobuskada ederra juan ziran, baiña eziñ izan doguna jakiñ izan da ia juandako guztiak bueltau ziran, auskalo.

Gaiñeko aldian: **Jose Egizabal, Isabel Oianguren, Angel Egizabal, Carmen Oianguren, Jose Antonio Retolatza, Ignacio Ruiz de Eguino, Marisol Moreno, Asun Elorriaga eta Kontxi Gorrotxategi.**

Erdi inguruan eta goixan: **M^a Isabel Arantzeta, Asun Barrutia, Carmen Arantzeta, Josefina Barrutia, M^aAsun Agirre eta M^a Belen Agirre.**

Erdi inguruan eta behian: **Arno (Soinujolia), Javier Elortza, Ignacio Arantzabal, Mari Paz Elkorobarrutia, Ane Moiren Alberdi eta Juan Mari Arantzeta.**

Beheko aldian: **Jose Ramon Arrazola, Angel Mari Agirrezabaldegi, Juan Ramon Basauri eta Felix Bolinaga.**

**Aldizkari
hauetan
guztietan
Gipuzkoako
foru
aldundia
izan dugu
bidelagun.**



**Gipuzkoako foru aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria**